



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Osteguna  
2007-12-13

V.URTEA 1.312.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

IÑAXIO PERURENA HARRI-JASOTZAILEA

## «Lasaitasun handia hartuko dut 290 kiloko harria jasotzen badut»

**LEITZA** Hilaren 31n, hiru aste barru, bere marka gainditzen saiatuko da Asteasun egingo duen erakustaldian

**MARKA** Buruan proba besterik ez duela dio; «Guztia ongi irteteko 20 segundoren azpitik jaso behar dut harria». 67



N. GARZIA

EÑAUT ELORRIETA KEN ZAZPI TALDEKO ABESLARIA

«Disko guztietan arriskatzen gara; erronka bezala hartzen ditugu»

**TOLOSA** 'Argiak' izeneko azken lana aurkeztuko dute bihar, 22:00etatik aurrera Leidorren 2

**Elkarretaratzeak egingo dituzte gaur eguerdian, '18/98 auzia' salatzeko 2**

**Irati Jimenezek hitzaldia emango du gaur literaturaren inguruan 3**

lortu ezazu  
**hitza**ren **harpidedun**  
**berri bat** eta **opari bana**  
**garenak** jasoko duzue  
**x2**  
izateko



aukeratu  
gustuko  
duzun oparia\*

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza**

BEZERO ARRETA ZENBAKIA:  
**902 820 201**

astegunetan: 08:30 - 20:30  
larunbatetan: 09:00 - 13:00

## 18/98 auzia gaitzesteko elkarretaratzeak egingo dituzte gaur 12:00etan

**Politika** » Tolosako EAEk eta Leaburu-Txaramako Udaleko langileen asanbladak bat egiten dute mobilizazioekin

### E. EZEIZA

Tolosako EAE-ANVko kideek eta Leaburu-Txaramako Udaleko langileen asanbladak beraien elkartasuna adierazi nahi die 18/98 auziko inputatu guztiei. Honen harira, gaur eguerdian egingo diren lanuzte eta manifestazioetan parte hartzeko deia luzatzen diete herritar guztiei. Izan ere, EAE-ANVren esanetan, «bidegabekeria judicial honen atzean Euskal Herriaren eskubideen aldeko borroka kriminalizazioa ezkatzen da».

### Elkarretaratzeak non

Ondorengo lekuetan burutuko dira gaur, 12:00etatik 13:00etara elkarretaratzeak. Tolosan: Udaletxe, EHNE sindikatu eta SAM nahiz Pasaban lantegien aurrealdean. Apatia erreka industriagunean, Voith, Gorostidi, Obeki eta Katean. Asteasu, T. Bost, Etxesa, Sufertra, Leibi eta Ariznabarreta enpresetan. Ibarra, udaletxe aurrean. Villabonan, udaletxean eta Artekan. Zizurkilen, udaletxean. Ikaztegiatan, Lantier eta Panelfisa enpresetan. Adunan, Unipapel, Endaki eta Kamepakan. Belauntzan, Reprocel enpresan. Albizturren, Antalis-en. Lizartzan, Insalusena eta 12:15ean, Udaletxe aurrean. Leaburu-Txaraman, Zuhazkin. Amaitzeko, Leitza 12:00etan manifestazioa egingo dute eta 20:00etan elkarretaratzea, «AHT nahiz 18/98 auziaren aurka».

## Iragarki laburrak

### SALGAI

- **Etxebizitza.** 90 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai Lazkaon. Interesatuak deitu 689 99 76 74ra.
- **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Zumardi Txikiaren parean (Santa Klara). 2 logela, sukalde handia, ganbara eta berogailuak. Hormigoizkoa. Uzturre aldera bistak. Deitu 665 70 86 35ra.

### GALDUTAKOAK

- **Txakurra.** Txakur sabuesoa galdu, da, pintoa. Belarri oso handiak. Lepoko horia, txapa gabe. Albiztur aldean galdua. Deitu 617 38 19 39ra.
- **Txakurra.** Artzai txakurra galdu da Hernialden. Kolore marroi argi eta beltzekoa. Tolosara joan zenaren susmoa dago. Telefono zenbakia: 943 65 35 26.

## E Elkarrizketa

**EÑAUT ELORRIETA** » Ken 7ko abeslaria



Ken 7 musika taldea gaur Leidor antzokian izango da bere azken lana, *Argiak* aurkezten; eskuinean, Eñaut Elorrieta abeslaria. HITZA

# «Diskorik disko arriskatzen den taldea gara; erronka bezala hartzen ditugu»

**Tolosa** » Ken zazpi talde gemikarrak 'Argiak', bere azken diskoa aurkeztuko du zuzenean bihar; kontzertua Leidor antzokian izango da, 22:00etatik aurrera

### ESTI EZEIZA

Duela hamaika urte sortu zen, eta egun, Euskal Herriko musika taldeetan erreferenteetako bat da Ken 7. Talde honetako abeslaria da Eñaut Elorrieta (Gernika, 1977). Duela egun gutxi argitaratu zuten *Argiak* beraien azken lana, eta bihar Tolosan aurkeztuko dute. Kontzertua Leidor antzokian izango da, 22:00etatik aurrera.

**Asteburu honetan bertan aurkeztu duzue zuzenean zuen lan berria, zer moduzko harrera izan du?**

Oso pozik gaude, jendeak harrera oso beroa egin digu. Bestalde, Durangoko azokan ongi saldu da eta lehendabiziko kontzertuaren ondoren oso tentsioa ona geratu zitzaigun. Urte bat egon gara diskoak prestatzen eta jo gabe. Horregatik, izugarrizko gogoaren zuzenekoak eskaintzen hasteko, hori bai gehien gustatzen zaiguna. Hala, desiatzen gaude kontzertuak emateko eta jendearekin harreman zuzenean izateko.

**Diskoa Euskal Herrian grabatu duzue, baina AEBn nahastu. Nolatan?**

Rafa Sardina ekoizle bermeotarra rekin egin dugun lan. Ezagun komunak genituen eta berak interesa jarri zuen gudan, gure proiektuan eta kantueta sinesten zuelako. Hala, aukera eman zigun berarekin lan egiteko. Donostiara etorri

zen, bertan grabatu genuen, eta gero proposatu zigun bere Los Angelesko estudioetan nahasteara. **Zer moduzko esperientzia izan da?**

Oso esperientzia aberasgarria izan da. Gainera, lan egiteko modua ere ezberdina izan da. Taldearentzako oso ondo etorri da. Azken hiru diskoetan eta zuzenekoetan hartu dugun esperientzia saiatu gara kantueta inladatzen. Bestalde, Rafaren laguntzarekin lortu dugu soinua hori disko batean, inoiz baino hobeto inladatzea. Emaitzarekin behintzat oso gustura gaude. **Aurreko diskoekin alderatuz, zertan nabaritu da aldaketa hori?**

Taldeen bertan nabari da, disko eta zuzenekoek ematen duten esperientzia bera. Bai, konposaketetan, baita kantueta ere. Taldekide bakoitzarengan, eta taldean ematen den bilakaera saiatu gara diskoan inlatsen. Bestalde, teknikoki, Rafak oso ibilbide luzea dauka egina, 10 Grammy sari irabazi ditu eta oso ongi jakin du, guk nahi genuen soinua hori lortzeko medio teknikoak jartzen. Zentzu horretan, ondo lan egin dugu, era ezberdinean, denek batera jotzen baikenen grabazio estudioan. Soinu aldetik ere nabari da heldutasuna, alde batetik, taldeak berak hartu duen arengatik, eta bestetik, Rafa beraren esperientziatik. Nire ustez, inguratzen zaituen soinua da eta aldi berean, oso indartsua. Zentzu horretan, kantuak energia handia dute, oso inarri indartsuak dituztenak eta aldi berean, oso melodikoak. Hala, emaitzari dagokionean, oso kantu freskoak eta energia handikoak egitea lortu dugu.

**Aldaketak eman badira ere betiko Ken Zazpi zarete.**

Rafa Sardinan ere hau oso garbi

zeukan. Hasieratik esan zigun gure identitatea eta karankterra errespetatuko zituela. Hori dela eta, gu oso gustura geratu gara. Azken batean, gu geu sentitzen gara hor, guk landutako eta egindako doinuak horgeratu dira.

**Aurreko diskoak Gor-ekin atera dituzue, oraingoa berriz, Oihukarekin. Zergatik?**

Gor-ekin ibilbide luzea eta oparoa egin dugu. Hiru disko atera ditugu, eta hauek oso emankorrak izan dira. Azken hau Oihukarekin egin dugu, eta beste etapa berri bat hasi da. Hala ere, gure esker ona eta adierazi behar diogu Gor-i. Ez dago arrazoi berezirik disketez aldatzeko.

**Argiak izenburupean argitaratu duzue azken diskoa, zergatik izen hau?**

Hitz horrek ongi laburbiltzen du diskoan ibili dugun filosofia. Hitzetan, nahiz konposatzeko garaian itxaropena izan dugu ardatz, ikuspuntu ezberdinetatik begiratu. Alde batetik, maila pertsonalean, eta bestetik, maila kolektiboagoan. Argia hitzak hori inladatzen du: indarra, ilusioa, ametsak eta desioak. Hitz batean esanda, itxaropena. Itxaropena abesten diogu, baina ez itxaropen estatikobati, baizik eta, aurrerapausoak ematen dituzunean irabazten den itxaropen hori.

**Kantu guztiak nolabaiteko lotura dute, zerk lotzen ditu?**

Aurreko diskoetan alde handiagoa zen agian, kantu gogor eta erdi tempokoan artean. Tinbre aldetik, diferentzia handiagoa zen. Kasu honetan berriz, badaude kantu gogorak, eta baita tempo erdikoak ere, baina beraien arteko distantzia ez da horren handia. Guztiak ere berezko indarra mantentzen

dute, energia handikoak dira eta aldi berean melodia gordetzen dute. Nire ustez, diskorik disko arriskatzen den taldea gara, ez gara lortutako kotetan geratzen den talde horietako bat. Erronka bezala planteatzen ditugu disko guztiak eta arriskatu egiten gara bakoitzarekin. Esaterako, *Gelditu denbora* disko akustikoa zen eta jendeak galdetzen zigun, ea nolatan erabaki genuen akustiko bat egitea. Baina guretzako erronka bat zen, tinbre ezberdinekin lan egitea eta kantuak norabide nahiz ikuspuntu ezberdinetatik planteatzea. Lortu genuen aretoetan jotzea. Ordura arte inguru ezberdinetan ibiltzen ginen, eta horrek beste ate batzuk zabaldu zitzaigun. Lortu genuen, Arriaga, Kursaal edo Principal bezalako lekuetan jotzea. Oraingo honetan ere, erronka bereziki bezala hartu dugu, eta horrek motibazio bereziki ematen duela uste dut. Gainera, gauzak gogoz egiten dituzunean, zeure onena ematen duzu eta jendeak entzutean igeritzen da hori.

**Aurkezpen birarekin hasi zarete, aurrera begira emanaldi asko atera al zaizkizue?**

Gure oraingo erronka berria hori da, zuzenekoak ematea. Azken batean, benetan gustatzen zaiguna hori da, jendearekin zuzeneko harremana izatea. Orain, bihar Tolosan joko dugu, etzi Lurren, Elizondan eta datorren astean Ezpeletan. Neguan barruko kontzertuak ematen ariko gara, eta horretarako kantu sorta eta ikuskizun bereziki bat prestatu dugu. Orain hori daukagu buruan, eta hori da gure erronka, zuzenekoetan gozatzea, eta gurekin batera, kontzertuetara etortzen direnek ere ondo pasatzea.



Irati Jimenez, aurtengo Augustin Zubikarai saria. HITZA

## Irati Jimenezekin literatura solasaldia, gaur, Kultur Etxean

**Literatura** » Gaur, 20:00etan izango da literaturari buruzko hitzaldia, Kultur Etxean, Galtzaundiren eskutik.

### ERREDAKZIOA

Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, Tolosako kultur etxean Irati Jimenezen literatura solasaldia izango da gaur, 20:00etan. *Bat, bi, Manchester* idatzi duen eleberriarren berri hitz egingo du hitzaldian, eta horretaz gain, eta idazteko zaletasuna nolaz etorri zitzaion azalduko du.

### Augustin Zubikarai saria

Irati Jimenez Mundakan jaio zen 1977an, eta Barakaldon bizi dagaur egun. Edorta Jimenez idazlearen alaba da. Kazetaritza ikasi zuen. Berarentzat izan da aurtengo Augustin Zubikarai saria, hala erabaki baitzuten epaimahaia osatzen zuten hiru idazleek, Kirmen Uribe, Xabier Mendigurenek eta Miren Agur Meabek.

### Eleberriarren nondik norakoak

Manchesterrera joan zen gizonezko gazte euskaldun bat da kontalaria, *Bat, bi, Manchester* liburuan. Homosexual aitortua, itzultzailea dalanbidez eta idazle izan nahi du. Beste mutil euskaldun batekin banatuko du apartamendua. Adiskidetasun estu bat sortuko da bien artean, baina desira bete ezinaren itzala sumatuko da uneoro. Epai-

mahaiko kide izan den Miren Agur Meabek esan du Jimenezen eleberria asko gustatu zitzaiola hasieratik. «Harreman baten istorioa da eta harreman horren bilakaera oso ondo azalduta dago. Ezinezko amodioa, homosexualaren eta heterossexualaren artekoa, ez da zeharo inposiblea sentimenduk al dakorrek direlako». Izaeraz oso ezberdinak diren bi pertsonak «elkarrekin egiten duten prozesua» agertzen du. «Nobela afektuen mosaiko baten moduan ikusten dut», azaldu du Meabek. Esaldi laburrak nagusitzen dira eleberririk horretan. «Lehen pertsonako narrazitzailea idazlea da, edo idazteko bidean dago. Horregatik, batzuetan idazteko ezintasuna oso presente dago, baina ardatz probisionala da».

Hain zuzen ere, Irati Jimenezek baieztatu du ideia hori: «protagonista idazle izateko gogoarekin bizi da, baina bere buruari jartzen dizkio hainbat traba, konfiantza faltagatik agian. Beraz, nobela hau idazteak nire mamuak uxatzeko balio izan dit. Izan ere, neuk ere idatzi nahi izan dut, eta idatzi dut luzaroan, baina inoiz bukatzen ez ziren istorioak. Protagonistaren bidez niretzat oso intimoak ziren gauza horiek kontatu ditut». Egilearentzat, *Bat, bi Manchester* bate-tik, «maitasun inposiblearen istorioa» da eta, bestetik, «sormen posiblearen istorioa». Nobelak ezer esaten badu, agian batzuetan geuru buruari jartzen dioguna oztopo delako izango dela da».

## «Badaude buruko zapiarena baino diskriminazio sakonagoak»

MAYA AMRANE » Aljeriar jatorriko emakumea

**Gizartea** » 19:30etik aurrera, Jatorkin elkarteak antolatutako hitzaldian hartuko du parte aljeriar jatorriko Maya Amrane.

### IÑIGO TERRADILLOS

Jatorkin elkarteak antolatutako *Euskal Herriko Herriar Berriak* jardunaldien baitan, gaur, 19:30ean, Magrebeko emakume etorkinei buruzko hitzaldia izango da Tolosako Ekinbide Etxeak duen egoitzan, jubilatuen egoitzarengainean. Maya Amrane duela 3 urtetik Bilbon bizi den 35 urteko aljeriarrek hartuko du parte bertan, Laura Rodriguez eta Hajar Samadi Torre de Babel elkarte kideekin batera.

**Bi emakume musulmanen ikuspuntua gertutik ezagutzeko aukera izango da gaurkoan. Zer da zuk azalduko duzuna?**

Nire esperientzia kontatuko dut, gertatu zaizkidan gauzak, nire integrazioa nola izan den Bilbon... Horretaz gain, erlijio musulmana nola praktikatzeko dudak musulmana ez den lurralde batean ere azalduko dut.

**Emakume musulmanen inguruan aurreiritzi asko sortzen dira.**

Saillatu egiten gaituzte berehala, aurreiritziak izan dituzte, eta hori soilik gure itxuran oinarrituta. Izan ere, hori bakarrik ikusten dute, itxura, eta horretaz haratago ez dute ezer jakin nahi izaten. Erlijioa eta tradizioa bereiztu behar dira, hauek gehiegi nahasten baitira: erlijioa bizi daiteke tradizioak

hainbeste mantendu gabe. Islama kutsaturik dagoela kulturekin esango nuke.

**Hainbat ikastetxetan buruko zapiaren jantzea debekatu egin diete ikasle musulmanei. Zure iritzia?**

Nik uste dut garrantzi handiegia ematen zaiola buruko zapiari. Diskriminazio bezala hartzen dute. Baina, behartuta jatzeko ez dutenengan, ez dago diskriminaziorik. Jendeak kanpokoari soilik ematen dio garrantzia, eta haratago joan behar da, bai baitaude diskriminazio sakonagoak buruko zapiarena baino. Beraz, buruko zapiaren gaia uste dut gainditu egin beharko genukeela. Esan bezala, buruko zapiaren emakume bat askoz ere independenteagoa eta libreagoa izan daiteke, erabiltzen ez duen bat baino.

## «Emakume euskaldunetan ere badago matsimoa, unibertsala da»

LAURA RODRIGUEZ » Torre de Babel elkarte kide lehenakaria

**Gizartea** » Emakume marokorrei buruz ariko da gaur Laura Rodriguez, Jatorkin elkarteak antolatutako hitzaldian

### IÑIGO TERRADILLOS

Jatorkin etorkinen aldeko elkarteak gaurko antolatutako Magrebeko emakume etorkinei buruzko hitzaldian hartuko du parte Laura Rodriguez irundarrak.

**Biemakume musulmanekin batera hitzaldian hartuko duzu parte gaur. Zer da zuk azalduko duzuna?**

Nik nire esperientzia kontatuko dut, eta horretaz gain, emakume marokorrei buruzko informazioa emango dut nik egin ditudan ikerketen arabera.

**Torre de Babel elkartearen lehenakaria zara. Zein da zuen lana?**

Aholkuak eman, informazioa eskaini, laguntza, babesa... hori izaten da gure lana.

**Noiz eta nolatan hasi zinen bertan?**

Duela 10 urte hasi nintzen ni arabiar munduarekin lanean; ikasten ari nintzen unibertsitatean, eta aldi berean etorkin adingabeko zentro batetan ere aritzen nintzen. Hala, karrera amaierako tesina emakume musulmanei buruzkoa egin nuen. Bi urte bizitzen egin nituen Marokan, eta senarra ere bertakoa dut, beraz, gaia oso gertukoa da niretzat.

**Etorkin marokorrek normalean gizonezkoak izaten dira.**

Bai, baina gero eta gehiago dira emakumeak. Hauek, izan daitezke familian etorriak eta lanerako baimenik gabe, edota bakarrik etorriak laneko baimenarekin. Desberdindu egin behar da baita ere,

nondik etortzen diren eta erabiltzen duten hizkuntzaren arabera. **Matxismoa eta erlijio musulmana lotzen dituzte maiz.**

Emakume euskaldunengan ere badago, unibertsala da. Agian ekonomian atzeratuago dauden gizartean nabarmenagoa izaten da.

# X. elkartasun krosa

san silvestre

**abenduak 31, 16:00etan ZERKAUSIAN.**

**distantziak**

- 16:00H** benjaminak 800 m
- 16:30H** alebinak 1600 m
- 17:30H** infantilak 2900 m
- 17:30H** nagusiak eta beteranoak - NESKAK 5050 m
- 17:30H** nagusiak eta beteranoak - MUTILAK 5050 m

**sariak**

- 17:00H** benjamin, alebin eta infantilak kamisetak eta karpetak denentzat, dominak eta garaikurrak...
- 18:30H** nagusiak eta beteranoak saskiak, afariak, garaikurrak eta polikiroldegiko bonoak eta 2 kirol-medikuntza azterketa

**izenematea**

Abenduak 17tik aurrera, ARALAR KIROLAK dendan. Eta egun

Helduak aurrez 5 euro, egunean 7 euro (oparia: kamiseta) **Haurrak DOHAN**

Elkartasun kross honetan jasoko den dirua, Guabas errearen inguruko proiektua bultzatzeko erabiliko da, beraz kolontziara bidaliko da. Honetarako, diru bilketa egingo da egun berean

## Laburrak

### Herri bilera Ekintza Planaren inguruan

**BELAUNTZA** ● San Lorenzo Udaltalde 21 osatzen duten udalerriek jada osatuta dituzte euren udalerriko Ekintza Planen lehen zirraborroak. Gai ezberdinak jorratuko dituzte bertan: biztanleria, etxebizitzak, ekipamenduak, zerbitzuak eta ingurumena bestek beste. Belauntzan Ekintza Plan hori aurkeztu eta guztien artean lehentasunak finkatzeko, herri bilera antolatu dute abenduaren 18rako, astearterako. Bilerak 19:30ean izango dira herriko Kultur Etxean.

### Kirol Elkartearen batzarra abenduaren 21ean

**IBARRA** ● Kirol Elkarteak (I.K.E.) Urteko Batzar Orokorra egingo du abenduaren 21ean 21:00etan. Antolatzaileek bazkide guztiei bertara agertzeko deialdia egin diete, jorratuko diren gaien garrantzia dela eta. Horretaz gain, urtero bezela, batzarrean gabonetako saskien zozketa egingo da bazkide guztien artean, antolatzaileek jakinarazi dutenez, izena emateko zerrenda iada elkartearen taulan aurkitzen da.

### Abenduaren 16an kontzertua elizan

**BELAUNTZA** ● Igande honetan, abenduak 16an, 12:30ean Belauntzako elizan Araotz Gazte Abesbatzak kontzertu bat eskainiko du. 11 eta 15 urte bitarteko 30 neskek osatzen dute taldea Gorka Mirandaren zuzendaritzapean, eta Europa zein Frantziako kantauak abesteaz gain, Jesus Guridi eta Francisco Escuderen euskal kantak ere abestuko dituzte, pianoaren laguntzaz. Kontzertua bukatzeko Gabon kantak egongo dira Kutxari esker antolatu den ekitaldian.

### Inauteriei buruzko bi bilera bihar Aurreran

**LEITZA** ● Inauteriei buruzko bilerak egingo dira bihar Aurreran. Lehen 20:00etan egingo da eta karrantarako partaideak bilduko dira. 20:30ean egingo den bileran berri, berreskuratu nahi den *atsaurren kalejiran* parte hartu nahi dutenak bilduko dira.

# «Euskal Herriak errepresioaren muga sendoa izaten jarraitu behar du»

**Politika** ● Askatasunak elkarretaratzeak deitu ditu Tolosaldeko hainbat herritan gaur 19:30ean eta 20:00etan.

#### ASIER IMAZ

Tolosaldeko Askatasunak eskualdeko hainbat herritan elkarretaratzeak antolatu ditu gaurko, azken asteetako gertaerei «aurre egiteko». Amezketak, Anoeta, Ibarra, Tolosa, Leaburu-Txarama eta Villabonan elkartzeko deia egin dute 19:30ean eta 20:00etan.

#### «Frankismoa gogora»

Tolosaldeko Askatasunak azken urtean inguruan eginiko irakurketan, «Frankismoa gogora ekarri duten eskubide urraketan aro» izan dela aipatu dute. Adibide zehatzak ere aipatu dituzte ondorio horretara zergatik iritsi diren azalitzeko: «salbuespen egoera erabatekoa; adierazpen askatasuna, bozkatzeko eskubidea... urratuak

dirrelako Espainiaren proiektua zalantzan jartzen duen sektore eta pertsona ororentzat».

Jauzi kualitatiboaz mintzatu dira, «eskubide urraketak horiei izatera ofiziala eman diotelako». Lehenik, Jarrai, Haika eta Segi gazte erakundearen kasuak jarri dituzte jauzi horren adibide gisa. Ondoren, 18/98 auziko «40 lagunen atxilotze eta filtrazio bidez ezagutarazi diguten epaia». Azkenik, «Euskal Herrian ezartzen den salbuespen egoera legezkoa eta ofiziala bilakatu dutela» ondorioztatzen dute, «justizia eta lege errepresioaren zerbitzura daudelako».

#### «Lehenengo tranpa bera»

Askatasunak orain dela 30 urteko «tranpa» gaur egun ere berriz gerta daitekeela esan du, «sufimendua luzatzeko beste ezertarako baliotzat hartu ez zuten transizio faltsu hura errepikatuko asmoa dutela, agerian uzten dute eguneroko gertaerak; ezertxo ere aldatuko ez duten itxurazko mugimenduak bu-

rutzeko egitasmoa darabilte esku artean».

#### «Ohiko aktoreak armatuta»

Azken asteetan zer gertatu den azaltzeko garaian, Tolosaldeko Askatasunak Frantzia eta Espainiako Gobernuei begiratzen die, eurentzat «errepresio politika arma garrantzitsua dela» aipatzen. «Azken asteetan bi estatuen aldetik izugarriko biolentzia jasaten dugula oso agerian geratu da: kartzeletatik jazoera larriak ezagutu ditugu: Iñaki Bilbao, Gotzone Lopez de Luzuriaga, Joan Bidart... Operazioa masiboek Euskal Herria zeharkatu dute; Gazteiz (Araba), Getxo (Bizkaia), Donostia (Gipuzkoa), Iruña (Nafarroa)... Ongi zehaztutako plangintza errepresioa da eta ohiko aktoreak goitik behera armatu dituzte; epaile, polizia, kazetari eta abarrak».

Askatasunak azalduriko egoera honen aurrean, Euskal Herriak zein erantzun izan duen eta nola erantzuten jarraitu behar duen aipatu nahi izan dute, elkarretara-

zteetan parte hartzeko deialdi zabalak egitearekin batera. Izan ere, Amnistiaren Aldeko Mugimenduen esanetan «azken 30 urteetan, errepresio politikari mugak jarri dizkiogun herria gara. Errepresioak Euskal Herriak mugak ditu, duintasunaren muga, borrokaren muga eta elkartasunaren muga. Aurrera begiratu eta muga horiei sendo eusteko deia luzatzen dugu. Espetxe politika eta errepresio bortitzari aurre egiteko deia egin nahi dugu, herriz-herriz antolatuz, gure presoen defentsan, errepresaliatueganako elkartasunean eta errepresio adierazpen guztiei aurre egiteko konpromisoan».

#### » ELKARRETARATZEAK

#### Ohiko lekuetan

- Amezketak. 20:00etan.
- Anoeta. 19:30ean.
- Ibarra. 20:00etan.
- Tolosa. 20:00etan.
- Leaburu-Txarama. 20:00etan.
- Villabona. 20:00etan.



### Asisko Urmeneta Uzturpen

**IBARRA** ● Uzturpe Ikastolako LH 3tik DBH 4 arteko ikasleek astelehenean Asisko Urmenetak komikigintzari buruz emandako saioaz gozatzeko aukera izan zuten. Komiki ereduetatik abiatuta, Euskararen Egunerako komikien lanketa egin zen, gela bakoitzak esaldiak txertatuaz. Ikasleek eskerrak emateko, herriko piperrak eman zizkien Urmenetari. HITZA



### Pirata txikiak Kultur Etxean

**IBARRA** ● Ereite Elkarte Multikulturalak etorkinen eguna ospatzeko, II. Jardunaldiak antolatu ditu. Lehen ekitaldia Ibarako Kultur Etxean egin zen atzo eta txikienei zuzendua egon zen. Bertan, Udal Liburutegiak antolatuta Lur Korta ipuin kontalariak pirata zahar baten ipuinak kontatu zizkien haurrei. ASIERIMAZ

txokoa h



4 sarrera pare zozketatu ditugu!

**BRUESA GBC**  
Fundacio Basquetinca.com

OSTIRALA  
ABENDUAK 14 - 20:30  
ILLUNBE

#### Hauek dira irabazleak:

- Maider Muñagorri Arozena (Tolosa)
- Iñaki Iturzaeta (Tolosa)
- Marian Delgado Cano (Tolosa)
- Garbiñe Mujika Lopetegui (Villabona)

## 12 eta 16 urte bitarteko gazteak, protagonista

**Aiztondo** » Aiztondo bailarako herrietan adin horretako gazteak biltzen ari dira egitasmo ezberdinak egiteko.

IMANOL GARCIA

Kaxkagor elkarte kulturalak *Aiztondon barrera hazi eta hezi* egitasmoa martxan jarri du. Bertako protagonistak 12 eta 16 urte bitarteko gazteak dira, Zizurkil, Alkiza, Aduna, Asteasu eta Larraulgoak. Kaxkagor elkarteak Izaro Lizarragak eta Lourdes Gorostegik azaltzen dutenez, «adin tarte horretarako gabezi bat zegoen. Kultura, aisia eta kirolen eskaintza zabalazaten dute, baina hortik aurrera

gizartearen gazte hauen parte-hartzea galdu egiten da, ez zaie jarraitzen bat duten ekintzarik eskaintzen».

### Lehenengo irteera

Puntu horretatik abiatuta, bilera egin dituzte herri horietako gazteekin, berain kezak eta proposamenak jasotzeko. Harrera oso ona izan dela azaldu dute Kaxkagor elkartetik eta dinamika bat sortu dela azaldu dute.

Dagoeneko irteera bat antolatu dute. Donostiako Txuri-Urdin izotz jauregiara joan ziren. Guztira 24 gazte animatu ziren. «Plana aurreikusitako gure bezala gauzatu zen eta balorazio oso positiboa egiten dugun», azaldu dute Kaxkagor elkartetik.

### Bigarren eskuzko azoka

Beste egitasmoa, dagoeneko martxan dagoena, bigarren eskuzko azokak antolatzearena da. Gabonen giroan egingo dute. Zizurkil hileren 20an izango da; Larraul hileren 21ean; Asteasu hileren 22an; eta Alkizan eta Aduna hileren 23an.

Egun hauetan, herri bakoitzeko kultur etxe edo liburutegian gazteak materiala biltzen ari dira. Azoka bera 17:00etatik 18:00etara egingo da, zaborretara botatzen ditugun materialak berrerabiliz. Bestalde, gurusoan laguntza ere eskatuko dute, pintxo batzuekin jai alaitzeko.

## Ipuin kontalaria eta antzerkia Udazken Kulturalan

**Ikaztegieta** » Gaur Idoia Sanchez ipuin kontalaria ariko da, eta bihar Txotx taldeak antzezlanaren emango du kiroldegian.

### ERREDAKZIOA

Udazken Kulturalaren baitan gaur ipuin kontalaria izango dute eta bihar antzezlanaren. Idoia Sanchez ipuin kontalaria emanaldi emango du liburutegian, 17:00etan.

Tolosaldeko gazteek osatuta dagoen Txotx antzerki tadeak *Beteluko balnearioko mirakulua* lana taularatuko dute kiroldegian

bihar, 22:00etan. Publiko gazteari zuzendutako antzezlanaren da eta umorea da ardatz garrantzitsua. Txotx taldekoek azaltzen dutenez, beraien helburua «antzerkiaren gozatzea» da. «Horretarako sortu guren lan taldea, gure artean asko ikasi dezakegulako, bakoitzak dituen ideia ezberdinak partekatuz».

Maria Altuna, Olatz Godoy, Joseba Maiza, Ander Malbadi eta Iñigo Peñagarikano dira taldea osatzen dutenak. Lan horrekin hainbat emanaldi egin dituzte eta orain Ikaztegiaren erakutsiko dute beraien obra. Dagoeneko beraien bigarren lana ere prestatzen ari dira.

## Ane Urkola eta Lore Amenabar Arrasateko Akordeoi Lehiaketan

### ERREDAKZIOA

Arrasateko Akordeoi Lehiaketan Loatz musika eskolako Ane Urkola anoetarrak eta Lore Amenabar irurarrak parte hartu zuten. Alde batetik, Gipuzkoako Jaialdian parte hartu zuen Urkolak eta zilarrezko domina lortu zuen. Hastapena B mailan hartu zuen parte eta 17. lehiakide izan zituen.

Bestalde, Amenabarek Gipuzkoako Lehiaketan hartu zuen parte eta bigarren saria lortu zuen. Sari hori ere lortu zuen neska katalan batek. Lehiaketa horretan Euskal Herriko, Kataluniako zein Espainiako 14 ikaslek hartu zuten parte, maila handiko lehiaketan.

## Zizurkilgo Kirol Asteburuaren baitan, gaur Patxi Usobiaga eskalatazailerak

### ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Kirol Asteburuaren baitan, gaur Patxi Usobiaga eskalatazailerarekin solasaldia egingo aukera izango da Atxulondo kultur etxean, 19:30ean. Usobiaga munda mailan dagoen eskalatazaileraren onenarikoa da eta bi aldiz jarraian irabazi du Munduko Kopa.

## Villabonako Udalaren laguntzak euskarazko webguneentzako

**Villabona** » Euskararen erabilera sustatu nahi du Udalak diru laguntzekin; bihar amaitzen da eskariak egiteko epea

### ERREDAKZIOA

Villabonako Udaleko Euskara Zerbitzuak diru laguntza deialdia egin du webguneak euskaraz egingo dituzten herriko elkarte, establezimendu, erakunde edo enpresentzat. Diru laguntza horien bitartez, Udalak euskararen erabilera sustatu nahi du hain garrantzitsua den esparru horretan.

### Webgune pertsonalei ez

Deialdiaren baldintzen arabera, ez dira lagunduko webgune pertsonalak, ez eduki iraingarriak dituztenak, ezta edukietara iristeko edonolako mugak jartzeko dituzte-

nak; era berean, ez dira deialdi honetan sartuko edozein herri erakunderi lotutako enpresa, talde, elkarte eta abarretako guneak.

Nolanahi ere, eskaera egiteko unean webguneak egin egon behar du, Udalak aztertuta ahal izateko.

### Egoitza, Villabonakoa

Diru laguntza hauek jaso ahal izateko beharrezkoak da eskatzaileak egoitza fiskala eta soziala Villabona izateko. Dena den, deialdi honetako baldintzak zehatzago ezagutu nahi dituenak Villabonako Euskara Zerbitzura jo dezake, eta bertan adieraziko diote zer aurkeztu behar duen eskaera egiteko.

Halaber, interesa duenak diru laguntza deialdiari buruzko informazioa Udalaren [www.villabona.net](http://www.villabona.net) webgunean eskura daiteke. Diru laguntza eskatzeko epea bihar bukatzen da.



## Jesusen Bihotzak Xiban garaile

**VILLABONA** » Jesusen Bihotza ikastolako DBH 3. eta DBH 4. mailako ikasleak, Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak Andoainean antolatu zuen VI. Xiba Jaialdian txapeldu geratu dira. Jaialdi horren helburua euskal jolas, joko eta kirolak berreskuratzeko gain, Gipuzkoako ikasle, ikastetxe eta herrien arteko harremanak sortu, sendotu eta bultzatzea da. HITZA



E **Elkarrizketa**

INAXIO PERURENA » Harri-jasotzailea

**Marka** » Inaxio Perurena leitzarrak hilaren 31n hitzordu garrantzitsua du asteasun: 290 kiloko harria jasotzen saiatuko da, bere marka gaindituz

## NAIARA GARZIA

Inaxio Perurena (Leitza, 1984) udako erakustaldiak amaitu bezain laister hurrengo marka gainditzeko entrenatzen hasi zen. Abenduaren 31n 290 kiloko harria altxatzeko saiakera egingen du, Asteasun. Hiru aste besterik gelditzen ez direnean, buruan hori besterik ez duela dio.

**Zenbat denbora daramazu Asteasuko markarako prestatzen?**

Uda garaian festak izaten dira baster guztietan eta erakustaldietan buru-belarri zabiltzala ezin da errekor bat prestatu. Erakustaldiak bajatzen direnean, orduan bai.

**Nola entrenatzen duzu?**

Gorputza ohitu behar duzu kiloak maneatzera, halterofiliaren antzeko ariketak ere egiten dituzte errak eta lantzeko. Gorputza karga hartzerako ohitu beharra duzu, bestela 290 kiloko harriari golpean heltzen badiozu...

**Gimnasia joaten al zara?**

Leitzan, adibidez, kiroldegia burni kromatuarekin oso polita dago, telebistan ateratzeko, esaterako, eta ispiluekin norberak bere buruari begiratzeko, baina ez pentsa gehiegi balio duenik. Dauden makinak muskulu zehatzak lantzeko dira, baina Leitzako gimnasioan ez dakit zenbat kilo manejatuko litezkeen. Guk hemen *jaula* bat prestatua daukagu, norberak bakarrik entrenatzeko, bakarrik ezinean geldituta ere minik hartzeko arriskurik gabe eta hortxe ariketa gehienak egiten ditugu. Atte ere hortxe entrenatzen zen eta ni ere ederki moldatzen naiz.

**Nolako izanen da Asteasuko proba?**

Horrelako probetan 5 minutu daudela esaten da: nik harriari heltzen diodanean epaileak txistua joko du, kronometroa martxan ja-



N. GARZIA

## «290eko harria altxatzen badut lasaitasun latza hartuko dut»

H **Hilberriak****JOSE ARELLANO ROLDAN**

Atzo hil zen, 85 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.  
-Goian bego-

Haren emaztea: Isabel Aizpuru Larrañaga; seme-alabak: Jose Ignacio eta Emili Viera, Jesus eta Ana Isabel Etxaluze, Ana Maria eta Angel Garate, Juan Carlos, Maria Isabel eta Jose Ramon Manso, Jon Mirena eta Joxi Txurruka, Patxi eta Maialen Lazkano, Virginia eta Jeronimo Muñoz, Trinidad eta Jose Antonio Glera; bilobak: Estibalz, Asier, Joel, Urko, Imanol, Jari, Leire, Aitor, Maitane, Unai, Janitz, Jose Alberto, Jose Angel, Francisco eta Mercedes, eta gainerako ahaideek.  
Haren animen alde oitotz bat eskatzen dizuete eta harren etor zaitzela GAUR, OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPIETA ERDIETAN, Azpeitiko SOREASUKO SAN SEBASTIAN parrokia elizan, gorputza bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Etxe Alai 7, 1. esk.



AZPEITIA  
2007ko abenduaren 13a

**JOSE ARELLANO ROLDAN**

AYO ATXITXE.  
ADEU IAIO.  
JOLASTEN JARRAITUKO  
DUGU!



Zure bilobek: Estibalz, Imanol, Joel, Jari,  
Asier, Urko, Leire, Maitane, Jaritz,  
Unai eta Aitor

AZPEITIA  
2007ko  
abenduaren 13a

rriko du. Dena ongi ateratzen bada 20 segundoren azpitik jaso beharra daukat harria, gerritik bularre-ramateko bi kolpe emateko asmoan naiz, baina behe xamarrean gelditzen bazait, hor ikusten da, jasotzen ari zarela, behe xamarrean

### Dena ongi ateratzen bada 20 segundoren azpitik jaso beharra daukat harria

### Gorputza ohitu behar duzue kiloak manejatzea, halterofiliaren antzeko ariketak ere egiten ditut

### Harriak gorputzean bere lekua hartu behar du beti, bestela, ez duzu behar bezala altxatuko

badago ezin da berdindu. Harriak bere puntua hartu behar du, orduan ongi joaten da edo bestela ezinez gelditzen zara.

### Bigarren kolpe horretan beraz, jasoko duzun edo ez ikusten al duzu?

Batzuetan iruditzen zaizu ongi dagoela, baina behe xamarretik hasten bazara, horregatik izaten dira ezin berdindu horiek. Harriak gorputzean bere lekua hartu behar du beti, bestela, ez duzu behar bezala altxatuko. Lurretik hartzen duzun momentuan ere bai, pixka bat goraxeago hartzen baduzu, gero gerrian ere gorago engantxatzen duzu eta jada ezin duzu bueltatu.

### Gorputzarentzako kirol arrisku-tsua al da hau?

Kontuak atera gure atek zenbat urte dauzkan zenbat kilo mugituaz, eta ongi dago, eta bere kintakoak ofizinan aritu direnak sekulan esfortzurik egin gabe, okerrago badaude asko. Logikoa da, pertsona bat zutik egonda bada ez dakit zenbat ordu, eta gero joan eta kolpean harri bat altxatzen badu, eta kolpe bat egiten badu, logikoa da gorputza hotza izanda lesio bat etortzea, baina luzatze-ariketak eta beroketak eginez gero, eta gerrian ongi lotuta, ez dago arazorik.

### Altxaldia abenduan 31n eginen duzu. Egun horretan bertan zenbat denbora hartuko duzu beroketak egiteko?

Jaialdia 17:00etan hasiko da eta hara 16:30ak aldera joanen naiz. Aurretik luzatze-ariketak suabe-suabe egin, baina ez da denbora asko behar. Gainera, plazara sartzenean ez diot zuzenean harri handiari ekingo. Lehendabizi 195ekoa, gero 220ekoa, hauei 4 jasoaldi emanen dizkiet, 2 eta 2, eta gero 290ekoari ekinen diot.

### Une horietan zailena zer izaten da?

Zailena sarrera hori izaten da, harriari ekite hori ikaragarri kostatzen da batzuetan. Askotan atzetik bulkatu egin behar izaten dizute, bestela ez zara joaten.

### Oso urduri jartzen zara?

Bai, nik akatsa hortan daukat. Baina aldi berean normala da, hilabeteak daramatza prestatzen eta gero 20 segundo izaten dira, edo dena oso ongi ateratzen da, edo ez.

### Entrenamenduak zer moduz joan dira?

Entrenamenduetan batzuetan jasoaldi nahiko onak egiten ditut, eta beste batzuetan ezin goratuz ibiltzen naiz... egun guztiak ez dira berdinak izaten. Orain, 3 aste gelditzen direnez, eguneko 24 ordu buruan daukat, eta igual base-rrian traktoretik saltatu eta hanka bihurritzen badut eta horrelako pentamenduak izaten ditut.

### Zein ariketa da zuri gehien gustatzen zaizuna?

Jasoaldi bat topeko kargarekin dotorea da, baina beste bat asko gustatzen zaidana esku batekoa da. Atteren lehenagoko bideoak ikustea asko gustatzen zait, bere teknika perfektua. Orain dela gutxi arte esku bateko errekorra atek izan zuten, 267 kilo, eta bigarrenak, 213. Kontuak atera zenbateko tartea dagoen. Orain bigarrena 225ekin

nintzen, baina orduan ez nuen entrenatzen. Etxean harri forma zuten egur zati bat zegoen, Leitza-ko plazan atera, altxaldiren bat edo beste eman eta kitto. Baina gero 11 edo 12 urterekin atek esan zidan, honetan jarraitzekotan gorputza indartu egin beharra zela, eta egunero zerbait egiten hasi nintzen.

### Udako erakustaldietan presio guxtiago izaten al duzu?

Erakustaldietan karga dezente erabiltzen dut, 260 kilo, baina behin bukatzen duzunean, aizkolariekin egoten den giroa, eta urrutiti xamar bazuade afariak... oso ongi pasatzen dugu.

### Abenduaren 31ko errekorri dagokionez, zuk zure buruari jartzen diozun presioa al da gogorrena, edo besteena?

Ez, norberak bere buruari ematen dion presioa. Erabatean prestatzen ari bazara, gero plazara joateko lana ona egin nahi izaten da, horrek berak jada tentsioa sortzen dugu.

### Zure marka gaintzeak zer esanahi izanen luke zuretzako?

290eko harria altxatzen badut La-

dik gutxira beste data bat jarriko nuke.

### Konparazioak beti egiten dira, eta Mieltxo Saralegik zure adinean gauza bera egin zuela diote.

Bai, herenegun jakin nuen. Ez ne-

### Zailena sarrera hori izaten da, harriari ekite hori ikaragarri kostatzen da batzuetan

### 18 urte daukat jada harri jasotzen eta 23 urte ditut, 5 urterekin egin nuen lehenengo saioa

### 2 aldiz izandu naiz Euskadiko 6 ordutan eta bietan oso oroitzapen txarra daukat

kien 23 urterekin 290 kilo jaso zituenuk. Umetan 16 urte nituenean 210 kilo altxatu nituen, 17rekin 240. Orduan adinari begiratzen diozu, baina behin karga hauetara

zeko 09:00etan hasi zen han eta nik 18:00etan neukan. Egun guztia han bueltaka ibili nintzen, atterengan pentsatzen eta gero bukatu zuten eta «orain zu», horrelaxe gainera etorri zitzaizdan, eta altxatu gabe utzi nuen. Gero handik hilabetera 265ekoa altxatu nuen, 2 kilo gehiagorekin.

### Aurten, aldiz, harria altxatzea lor-tu zenuen.

Aurten joan nintzenean aurreko urtekoa burura etortzen zitzaizdan eta gainera hor harriak aurreko egunean eramaten dituzte. Astearsum, adibidez, atek harriak eguerdi horretan berean emanen ditut, baina belodromora bezperatik eraman beharrak dira. Leku bixia da, inor ez dago, baina sentsazio arraroren bat badago hor. Handiegia gelditzen da hura. Gainera ohol-tza baten gainean izaten da, ohol-tza estu baten gainean, hain zuzen, eta inseguritatea ematen dizut.

### Ze lekutan gustatzen zaizu harria altxatzea?

Frontoian. Zelaia da, jendea biltzeko nahikoa, badakizu leku ona izan behar duela.

### Orain gutxi zarete harri-jasotzen ibiltzen zaretanak.

Bai, zaletasuna daukatena orain mutil gehiago badaude, saiatzen ari direnak, edo altxatzeko teknika duena ere jende gehiago dago, baina federatuta ez pentsa jende gehiegi gaudenik.

### Gaur egun honetatik bizitzerik ba al dago?

Gaur egun herri-kiroletan gabil-tzanak denak lan egiten dugu. Aizkolariek, harri-jasotzaileek... denak aparte lan egiten dute. Uler-tzekoa da, adibidez, mutil bat joaten da Decathlonera eta futbol-eko bota batzuk erosten ditu, bainagure txalekoak, zintokak... horrelakorik ez dago.

### Etxean egiten dituzue, beraz?

Gerriko luzea honela egiten dugu: gerriko motzak mertzerian erosi eta elkarri lotzen dizkiogu, eta nere txalekoaren moldea amak egina da, eta bazterreko botoi-zuloak Aresoko zapataria sartzen dizki. Dena etxean. Zuk txalekoari postura hartzen diozunean txalekoa zure gorputzera ohitzen da, harriarekin ere gauza bera gertatzen da, zuk bi harri egiten dituzu, neurri berekoak eta pisu berekoak, baretakin ibiltzen zara eta bestea geldirik dago. Printzipioz biak berdindu berdinak dira baina ez da horrela, harri bat erabilita puntuak hartzen dizkiogu, ezagutu bezala egiten duzu, eta gero bestea lehendabiziko jasoaldian arraroa egiten zaizu.

### Joan den igandean, Triangulon, Txuletaren Festaren barruan erakustaldia egin zenuten. Gustura aritu zinenen?

Bai, gainera jende asko zegoen eta oso animatuta. Momentu batean euri tanto batzuk bueta zituen, baina atertu egin zuten eta jarraitzeko aukera izan genuen.



N. GARZIA

ni nago eta halere kontuak atera zenbateko tartea dagoen.

### Hori da beraz gehien gustatzen zaizuna?

Gure atteren esku bateko jasoaldi ikustea, perfektuak dira, lurretik hartzen duen unetik goraino. Bolarena ere gustatzen zait, 211 kilotako bola bat altxatatu zuten behin, ikaragarria. Umetan ikusi nuen hori, atte esku batekin eta biekin errekorretan gora zihoala, eta nik bide hori hartu nuen.

### Zu beraz txikia zinenetik hasi zinen harriak altxatzen?

18 urte egin ditut jada harri jasotzen eta 23 urte ditut, 5 urterekin egin nuen lehenengo saioa. Atera

saitasun latza hartuko dut, asteen 2 egun harriekin entrenatzen dut eta gero gaimontzeoak pesekin. Behin ongi altxatuz gero, bukatzen da nolabaiteko tentsio hori, zaindu behar hori...

### Horrelakoak ere gertatzen dira, eta errekorra gaintzen ez baduzu?

Asteasura joan eta altxatuko ez banu, tokatu daiteke edozein arazorengatik, harria gaizki hartu dudalako eta beste katarro bat hartu dudalako, edo edozein gauzaren-gatik, mutur-muturreko kargetan edozein tontakeri nahikoa da altxatu gabe gelditzeko. Hori gertatuko balitzait, berriro segi eta han-

iritsita ez diozu gauza horiekin erreparatzen. Norberak entrenatzen jarraitu behar du, eta bide horretan jarraitu.

### Azkeneko Euskadiko 6 orduko nola bizitu zenuen?

Polita baino gehiago tristea izanduz. Gainera bi aldiz izandu naiz Euskadiko 6 ordutan eta bietan oso oroitzapen txarra daukat. 263koa izandu zen lehendabiziko ahalegina eta altxatu gabe gelditu nintzen. Azkeneko entrenamenduetan beti harria gora ongi eramaten nuen eta hara joan eta... beharbada ere izanen zen atek 100 kiloko harria 1.700 aldiz altxatu zuelako egun hartan, goizean. Goi-



5°  
2°

GOIZA  
ARRATS.  
BEROENA  
HOTZENA

EGUZKIA  
EGUZKIA  
6°  
1°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialea:** 687 410 034. alegialea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Alegia.** Gaztetxearen XX. urte-muga: Trango Eternal-Flame dia-positiba emanaldia 19:00etan eta 21:00etan barrukotea.

■ **Alegia.** Agenda 21eko bigarren herri batzarra 18:00etan udaletxean.

■ **Ikaztegieta.** Idoia Sanchez ipuin kontari ariko da Liburutegian 17:00etan

### Ikuskizunak

■ **Zizurkil.** Patxi Usobiaga eskalatazailak bere ibilbidea azalduko du Atxulondo kultur etxean 19:30ean.

### Hitzaldiak

■ **Anoeta.** Michel Marmier dokto-reak *Nola egin kirola bizkarra kaltete gabe?* hitzaldia emango du Abraham Olano kiroldegian 18:30etik aurrera.

■ **Tolosa.** Magrebeko emakume etorkina: generoa eta kultur aniztasuna hitzaldia zentro sozio-kultu-ralean (CIT) 19:30ean. Hizlariak: Laura Rodríguez (Babeleko dorrea), Hajar Samadi (Arabiera musulmanaren ikaslea) eta Amina Abdelaziz (Madrileko Ati-me).

■ **Tolosa.** Irati Jimenez literatura hitzaldia Kultur Etxean 20:00etik aurrera.

■ **Tolosa.** Adimen emozionala aurkezteko hitzaldia Laskorain Ikastolan, Usabalgo areto nagusian 19:00etan, ezagutzen ez du-ten gurasoentzat.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernika-ko arbola, 3. 943 651040.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

Black Heritage Singers taldearen saioa ikusteko aukera izango da Leidorren etzi; XVIII. mendeko esklabuek Ameriketara erritimo afrikarrekin kantatzen zituzten kantuak ahots indartsuen baitan.

# Gospel kontzertua Tolosan

## ERREDAKZIOA

**G**ospel ahots indartsuak entzungai izango dira etzi, larunbatarekin, Leidor aretoan, Black Heritage Singers talde estatubatuarren esku-tik. Emanaldiari 21:00etan eman-gio diote hasiera, Mundua Tolosan ekimenaren baitan.

Hain zuzen ere, hainbat artista bildu dituen ekimenari itxiera emango dio Gabonetako gospel kontzertu honek. Aurretik, Carlos Nuñez eta Alos Quartet eta Cesaria Evora izan ziren Leidorren. Au-rreko biek arrakasta handia lortu zuten eta azken honekin ere aretoa betetzea espero dute antolatzaile-ek.

## Taldeko partaideak

Black Heritage Singers taldea gos-peleko izen handiekin osatzen da. Rhonda O Neshia Chambers, Sterphen M. Johnson eta Alisa Pa-trick bakarlariak, Barry Bolden bateria-jotzailea, Dominic Torrae



Black Heritage Singers taldea. HITZA

Thigen baxu-jolea, eta Jerry Smith konpositorea, moldatzailea, musi-ka-zuzendaria, abeslaria eta pia-no-jolea.

## Izen handiko taldea

Estatu Batuetan sari gehien lortu dituen Mississippi Mass Choir for-mazio afroamerikarratik sortu zen. Era berean, Children of Israel eta Black Heritage Choir taldeekin ere elkarlana egin du. Formazio ospetsu honek arrakasta handia lortu du hasieratik, bai Estatu ba-tuetan, bai atzerrian ere.

Tolosa bisitatzen duten lehen aldia da. Duela hiru urte, ordea, Donostiako Kursaal Auditorioan egon ziren.

Gospelak egungo musika ko-rronte biziak hartu ditu bere baitan: jazz-a, blues-a, country-a edo hip hop-a esate baterako. Ga-rai bateko bakardade eta harrota-sun hura islatzen dute. Gospeleko ahotsak entzulearen ileak lazten dituztenetakoak dira.

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Uxue.** Gure poppolinak gaur urte bat. Zorionak muxu handi batekin zure familiarean partetik.

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

digitala  
h  
@

Datorren ostegunean, hilaren 20an, 18:30ean

## JOKIN BILDARRATZ

Tolosako alkatearekin elkarrizketa digitala.

HITZAren erredakzioan izango dugu zuen galderak erantzuteko.

Bidali aurrez zuen galderak

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info) webgunean.

Egunean bertan ere zuzenean galderak bidali ahalko dituzue.

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

